

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru. Irigaray, Villasante, Gorostiaga, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. San Martin, Zugasti, Arruza, Loidi, Etxaniz, ta Irigoyen jaun urgazleak. Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

“Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa”-k bialdu dauen erantzuna irakurri da. Aurreko batzarrean erabagi zanez teatro taldeen txapelketarako diru-eskabidea egin jakien eta eztabe aintzat artu.

Irigoyen jaunak diño igaz legez Aita Francisco Cortabitarte jaunak amar milla peseta eskeintzen deusazala Euskaltzaindiari Bizkaiko neska-mutillen artean sariketa bat egin daien. Esker onez artzen da Aita Cortabitarte jaunaren eskeintzea, eta aintzat artu direan oiñarriak oneik dira:

Euskal-Sariketea amar urtetik amabost urterako neska-mutil bizkaitarrentzat

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutillentzat. 1961-gko. Maiatzean egingo da adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amabost urtera izan bear dira. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira:

a) Amabi urtetik amabost urtera dituezanentzat: 600 pesetako sari bat; bi 400 pesetako; 350 pesetako bat; iru 300 pesetako; bost 250 pesetako; sei 200 pesetako; eta sei 150 pesetako.

b) Amar urtetik amabi urtera dituezanentzat: 500 pesetako bat; 400 pesetako bat; 350 pesetako bat; bi 300 pesetako; iru 250 pesetako; lau 200 pesetako; lau 150 pesetako. Sarietz gaiñera diplomak be emongo jakiez, bai neska-mutillai eta bai gertetan dituezanai be.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

a) Gitxienez kristiñau-dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.

b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta dagoen Euskal-kantak liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiñatzailleak guztietatik bat aukeratu daien itanduteko.

d) Esamiña egunean bertan emongo dan *Kresala* novelatik zerbait irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Urte osoan al dan guztia irakurtea komeni da.

e) Esamiña egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da urte osoan kristiñau-dotrinatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barrero kopieta ekitea oituteko.

f) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear dira al bait-eta-onena izan daiten aukeratuten dana.

g) Esamiña egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbait idatzi daien. Gaia itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4. Esamiñatzaileak Euskaltzaindiak izentauko ditu egingo dan eguna adierazoten dauenean.

5. Izenak 1961-gko. Aprillaren 30-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca-Ribera, 6 Bilbao). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

Irigoyen jaunak diño Oleaga jauna Bizkaiko Diputaziñoko buruzagiagaz egon zala Azkue-ren iztegi barriztauren lanen izenean aspaldian eginda daukagun eskabidea bultzatuteko asmoz. Eta oraindiño erantzunik ezpadaukagu be, jakin dauela bide onean dagoela eskabidea eta baleitekeala berrogetaamar milla peseta lortzea.

Arrue jaunak diño Gipuzkoako Diputaziñoko buruzagiagaz berba egin dauela, eta iztegirako, lendik emonda daukienaz gaiñera, beste ogetabost milla peseta emongo dituezala. Orretarako eskabidea egin bear da. Egin bedi.

Etxaide jaunak diño egokia izango litzakeala datorren Euskera-n iztegi barriaren orri pare bat edo argitaratzea, oraindanik izan daigun izango danaren erdua, eta diru-eskabideak egitorduan erakutsi aal izan daigun. Egin bedi.

Arrue jaunak Euskalerra osoko bertsolarien azken txapelketa nagusiaz ekin deutso. Diño berba egin dauela "Centro de Atracción y Turismo"-koakaz eta oso gogoz artu dabela. Prestaera-lan guztiak arein kontura izango dira eta Euskaltzaindiak txapelketea zuzenduko dau. Donostiako teatro batean egingo da sarrerea kobrauta. Irigaray, Mitxelena, Arrue, ta San Martin jaunak izentetan dira areikaz artu emonak izan daiezan, eta datorren batzarrean artu beitez azken-erabagiak.

Irigoyen jaunak diño Semendiaren 27-an egokia izango litzakeala Bilbon Bizkaiko ta Nafarroako bertsolari nagusien artean desafio bat egitea adiskide gisan. Bi toki bakoitzetik. Ain zuzen be egun orretan futbol-partidu bat jokatuko da Bilbon donostiar eta bilbotarren artean eta gipuzkoar euskaldun asko joan oi da ikusten, eta bide batez aukeran izango leukie bertsolariena be. Beste alde batetik bizkaitarrak eztituez ezagututen nafarrak. Gaiñera bertsolari nafar eta bizkaitarrak Donostiara joan baiño lenago alkarregaz ekitea egokia da, sekula alkartu eztiREALAKO, Euskaltzaindiarentzat diru-iturria izan leiteke teatro batean eginda. Egin bedi.

Irigoyen jaunak diño Bizkaiko Ahorro Kaxeak ontzat artu dauela Domingo Agirre novela sariaren epea urte bete luzatzea, eta Toribio Alzaga teatro-saria 1961 urterako imintea. Novela sariaren epe barria 1961-VII-20 da. Teatro-sariaren oiñariak ontzat artu dira. Ona emen:

Toribio Alzaga teatro-saria 1961

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oinarriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi litezke teatro-lanak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan liteke, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Gutxienez ordu bete iraun bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 × 22 gutxi gora beera).
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.
- f) Saria, gabe gelditu liteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarra Bizkaiko Ahorro-Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6 - Bilbao) 1960-gko. Uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

Eneko Irigaray jaunak karta bat bialdu dau. Diño Gipuzkoako teatro taldeen txapelketa barria prestau gura dauela Euskaltzaindiaren baimenagaz. Eta Euskaltzaindiari izenezko eta teknikazko laguntza eskatzen deutso. Erantzun bekio aurrekoaren diru-kontua erabagi bear litzakeala lenengo eta dirua lortu oraingorako. Gaiñera, Euskaltzaindia bada egiten dauena, oinarri batzuk imini bear izango litzakez eta zabaldu, jakitun imini az teatro-taldeak.

Anai Berriotxoak asmo bat bialdu dau lan labor batean: diño egokia izango litzakeala Euskaltzaindiak titulu bat sortzea euskal-izkuntzaz estudio batzuk eginda koentzat. Esamiña batzuk egin bear izango litzakez iru urtetan-edo gai jakin batzuen gaiñean, eta azkenez titulua emon. Asmo au Irun-go Euskaltzaleen Biltzarrean agertzeko gogoa eukan. Baiña atzeratu egin dan ezker Euskaltzaindiaren batzarrera bialtzen dau. Oso ondo artzen dau asmo au Euskaltzaindiak eta aurrera eroatea egokia izango litzakeala deritxo. Irigaray, Villasante ta Anai Berriotxoak izentetan dira zeatz arakatu daien kontu ori eta oinarri batzuk zelan imini ikusi daien. Textoak be aukeratu bear izango litzakez. Euskaltzaleen Biltzarra egiten danerako asmo au aurreratuta egon lei.

“Euskal kulturaren Alde” alkartasunak lan bat bialdu dau Euskaltzaleen Biltzarreko.

Arrue jaunak diño Errenteriako Ayuntamientoak omenaldi bat egin gura deustala Luis Mitxelena jaunari eta ori dala-ta beragana joan direala eretxi-eske. Bere ustez egokia izango litzake Euskaltzaindiko sarrera-itzaldia bertako Ayuntamientoaren etxean egin daien. Bide batez erriak zerbait eskeini leio omenez. Urtarrillean egin aal izango litzake. Egin bedi eta aukeratu bedi erantzuna egingo deustan euskaltzain bat.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.